

Udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamenak eta konpromisoak.

Apirilaren 10ean Arkupe Kultur Etxean ospaturiko Eskolen Arteko Foroan **Maiatzaren 17ko udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamenak aukeratu ziren**, ikasleen lehentasunaren arabera.

Behin proposamenak aukeratuta, maila ezberdinen artean banatu ziren zozketaren bitartez. Azkenik, maila bakoitzeko ikasleek udalbatzarrean aurkeztu beharreko proposamena haien hitzekin formulatu zuten, **proposamen bakoitzarekin loturiko konpromisoa gehituz**.

Jarraian, ikasleek udalbatzarrearen egunean aurkeztuko dituzten proposamenak eta konpromisoak aurkezten dira. **Udalbatzarrearen egunean proposamen bakoitzeko erantzun bat ematea proposatzen da**.

1.PROPOSAMENA: LH 1. maila

Proposamena: Uraren inguruko **udaleku bat egitea** proposatzen dugu.

Konpromisoa: *Jendea animatuko dugu bertara joateko.*

2.PROPOSAMENA: LH 2. maila

Proposamena: Herrian apurtuta dauden **tuberiak eta iturriak konpontzea** proposatzen dugu.

Konpromisoa: *Tuberiak apurtuta badaude abisatzea.*

Hirigintza departamentutik, zerbitzuetatik hain zuzen ere, kontrol zehatza eramaten dute. Fuga bat dagoenean ur kontadoreen bitartez ia momentuan detektatzen dute eta ondorioz konponketa azkarra izaten da.



3.PROPOSAMENA: LH 3. eta DBH 2. mailak

Proposamena: Ibaia edo lurrera zaborra ez botatzea eta ibaira ur zikinik ez botatzea. Ez bota janaria komunetik edo fregaderatik ere (LH 3). **Ibaian dagoen zikinkeria garbitzea** da gure proposamen nagusia. Errekan honako zabor motak daude: plastikoa, beira... Errekan dagoen zikinkeria itsasora joaten da. Gehiago zaindu behar da (DBH 2).

Konpromisoa: Guk ez dugu errekarra edo kalera zaborrik botako(LH 3). Guk hartzen dugun konpromisoa da, ez botatzea zaborrik ibaira eta garbi mantentzea (DBH 2).

Guk sortutako zaborra behar den bezala birziklatuz eta dagokion edukiontzira bota ezkerro, neurri haundi batean horrelako arazoak gutxituko ziren. Ibaietara, itsasora, mendietara....ailegatzten den zaborra guk sortutako da, beraz gure ardura da baita arduratsuak izatea hartutako konpromisoarekin

4.PROPOSAMENA: LH 4. maila

Proposamena: Lantegiei ibaira zikinkeriarik ez botatzeko esatea, ezta kutsadura edo kerik ere. Bestetik, **lantegien** isurketak saihestea eta ibai ertzetatik urrun daitezen egitea.

Konpromisoa: Lantegikoei kutsadura murrizteko eta gauzak eskuz egiteko esango diegu.

Lantegiak **legez** debekatuta dute ibaira isurketak botatzea eta legea ez betez gero, isunak jasotzen dute. Ala eta ere zoritxarrez nahita edo nahi gabe (lantegietako funtzionamenduaren aberiak direla eta) noizbehinka gure ibaiak kutsadurak jasan behar izaten dute.

Azken arazo horrekin lotuta, Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Aretxabaletako aire kalitatearen beste ikerketa bat egitea. Eusko Jaurlaritzak onartu du eta aurreikusita dago 2 edo 3 hilabete barru ikerketa hori egiteko beharrezkoa diren unitate mugikorrek (airean dagoen partikulak eta abar jasotzen duten furgoneta bereziak) Aretxabaletan jartzea.

5.PROPOSAMENA: LH 5. eta DBH 1. mailak eta 6. PROPOSAMENA: LH 6. maila

Proposamena: Gure proposamena **kanpaina batzuk** jartzea da, jendea kontzientziatzeko eta ur gutxiago gastatzeko (LH 5). **Sentsibilizazio kanpainak** ibaiaren garrantzia eta egoeraz kontzientziatzeko (DBH 1).

Konpromisoa: Ura gutxiago gastatzen saiatuko gara, bainatu beharrean dutxatu egingo gara. Komuneko bonba ere beharrezkoa denean bakarrik botako dugu (LH 5). Guk, kanpaina horretan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu, baita hitz egindakoa besteei kontatzeko ere (DBH 1).

Proposamena: Etxeetan eta iturrietan ur gutxiago gastatzea eta Aretxabaletako iturrietan difusorea jartzea.

Konpromisoa: *Ur gutxiago gastatuko dugu, adibidez, hortzak garbitzerakoan ez dugu txorrota irekita utziko.*

Kontsumoa gutxitzeko helburuarekin, aspaldian Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Ur Agentzia, Udalak... kanpainak abian jarri zuten eta jarraitzen dute komunikazio helbideetatik gogora arazten baina konpromisoa betetzea gure ardua da. Zuek luzatutako "uraren dekalogoan" garbi dago zeintzuk diren ezinbesteko gure bete beharrak kontsumoa arduratsua lortzeko.

7.PROPOSAMENA: DBH 4. maila

Proposamena: **Ibar basoa berreskuratzea**, landareak landatzea. Ideia hau garatuz, gure herriko ibaia kanalizatuta dagoenez, ibaiaren inguruan egon beharko zena ez dago. Honen ondorioz, erreka ekosistema gutxitu egin da eta hori dela eta, landareak landatuz gero, lehengo ekosistemara itzuliko litzateke.

Konpromisoa: *Udaletxeak antolatutako taldeak sare sozialetatik zabaldu. Kanpainetan parte hartu. Bertako landaretza bultzatu.*

"URA agentzia" da gure ibaien ekosistemaz gehien arduratzen dena. Urtero diru kopuru handi bat inbertitzen du gure ibaien ekosistema zaintzen. Hartarako landare inbasoreek errotatik ateratzen dituzte eta bertako zuhaitz eta landareak landatu.

Landaketa ohiekin nahi duena da bertako ibaien ekosistema errekueratzea.

Baina esan beharra dago ez dala bakarrai gai honetaz arduratzen dena, udalak ere bere lana egiten du herriko ibaiaren zaintzaz

8.PROPOSAMENA: DBH 3. maila

Proposamena: Eraikuntzak edo parkeak, **ibai ertzean ez eraikitzea**, bertatik zikinkeria asko jausten delako.

Konpromisoa: *Parkeetatik eta eraikuntzetatik ez bota zaborra ibaira.*

Aurretik esan dugun bezala zikinkeria ez da jausten!! Guk sortzen dugu baizik, beraz arazo nagusia ez da eraikuntzaren eta parkeen kokapena baizik eta gure konpromisoa naturarekiko.



Ingurumen saileko burua
Aretxabaletako Alkatea
Izp.:
Unai Elkoro Oianguren